

Euskal AEko eraikuntzaren kostuak % 0,4 jaitsi dira 2025eko apirilean


Urte arteko datuei dagokienez (2025eko eta 2024ko apirila), kostuak % 0,3 igo dira

2025eko apirilean, Eustaten datuen arabera, Euskal AEko eraikuntzaren kostuen indizea % 0,4 jaitsi da aurreko hilabetearen aldean. 2024ko hil beraren aldean, kostuak % 0,3 igo dira.

Kostuak % 0,4 jaitsi dira Eraikuntzan eta % 0,1 Ingeniaritza zibilean. 2024ko apirilaren aldean, prezioak % 0,2 igo dira Eraikuntzan eta % 0,5 Ingeniaritza zibilean.

Euskal AEko Eraikuntzaren kostuen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasak sektoreka

Ehunekoak



Iturria: Eustat. Eraikuntzaren kostuen indizea

2025eko martxoaren aldean, **lehengaien** kostuak % 0,5 jaitsi dira eta **eskulanarenak**, berriz, egonkor mantendu dira. Urte arteko datuei dagokienez, lehengaien kostuak % 0,2 egin du gora eta eskulanarenak % 0,4.

Lehengaien kostuak % 0,6 hazi dira hil artean Eraikuntzaren sektorean eta % 0,2 Ingeniaritza zibilarenean. Urte arteko bilakaeran, lehengaien kostuak % 0,1 igo dira Eraikuntzan eta % 0,5 Ingeniaritza zibilean.

Euskal AEko eraikuntzaren kostuen indizea. Aldakuntza-tasak (p). Apirila 2025

	Indizea	Aldakuntza (%)	
		m/m-1	m/m-12
Guztira	120,7	-0,4	0,3
Eraikinak	120,5	-0,4	0,2
Ingeniaritza zibila	121,7	-0,1	0,5
Lehengaiak	122,1	-0,5	0,2
Eraikinak	121,8	-0,6	0,1
Obra zibila	123,3	-0,2	0,5
Laneskua	116,9	0,0	0,4

Oinarria 2021=100

m / m-1 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

(p)Behinbehineko datuak

Data 2025eko Maiatzaren 23a

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren Kostuen Indizea

Eraikuntzaren sektorean kontsumitu diren lehengai nagusien prezioek 2025eko apirilean izan dituzte urte arteko igoera handienak, eta azpisektore hauetan kokatzen dira: *Produktu metalikoen fabrikazioa, makinak eta ekipoak izan ezik (% 4,8) eta Metalikoak ez diren beste produktu mineral batzuen fabrikazioa (% 4,3)*. Bestalde, *Koke-lantegi eta petrolio-findegietako* lehengaien kostua % 18,5 jaitsi da.

Euskal AEn kontsumitutako lehengaien prezioak, sektorearen arabera (A64). Urte arteko aldakuntza-tasa (p). Apirila 2025

	m / m-12
Ateratze-industriak	-0,3
Kokeak eta petrolio fintzen	-18,5
Metalikoak ez diren beste produktu mineral batzuen fabrikazioa	4,3
Produktu metalikoen fabrikazioa, makineria eta ekipoak salbu	4,8
Material eta ekipo elektriko fabrikazioa	2,7

Oinarria 2021=100

(p)Behinbehineko datuak

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Data 2025eko Maiatzaren 23a

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren Kostuen Indizea

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel: 945 01 75 62